

INDIAKO ALABA GALDUAK

Familia ugarik alabak desagerrarazten dituzte zamatzat hartzen dituztelako

Inork ez daki non dauden Mahimaren herrixkan falta diren neskak, Mahimak berak izan ezik. Haietako bat, berea, ikusi zuen azken aldian bere sabeletik irteten ari zen, maite ez zuen alaba baten abortua balitz bezala. Gainerakoei buruz, inork ez daki ezer.

Neskatoak falta dira Rajastan estatuko herrixka urrun horretan, alboko herrian eta India osoan, baina inork ez ditu bilatzen. Ez dituzte ezagutzen. Gehienak hilda daude edo ez dira jaio.

Azken 30 urteetan, milioika neska desagertu dira Indian edo sei urte bete baino lehen hil. Susmoa da gurasoek hil, saldu edo abandonatu dituztela. Alaba horiek hazteko behar den diruak bideraezin bihurtu du haien bizitza.

HILKETA SELEKTIBOA

Bere bulegoan, New Delhiko Lodhi Estate auzoan, Nazio Batuetako funtzionario batek diagrama bat marraztu du desagertze horietan parte hartzen duten gizarteko sektoreekin. «Diagramako lerroak nesken familiak, Gobernua, Polizia, ospitaleak eta ekonomia zeharkatzen ditu. Denak daude hor sartuta, eta inori ez zaio axola», dio, izen horiek zirkulu bat eginez lotzen dituen bitartean.

80ko hamarkadaren amaieran, jaio berrien heriotzei buruzko txosten batzuek argitara atera zuten, jaio eta ordu gutxira lepoa moztuta, esne pozoituarekin edo izara bustiekin itota, nesken hilketa selektibo bat egiten ari zen Indian.

1991n, errolda nazionalak alarmak piztu zituen. Datu ofizialen arabera, 1.000 gizonen 927 emakume zeuden, eta mun-

 **JENDARTEA** / Indira GUERRERO (Efe)

Azken 30 urteetan, milioika neska desagertu dira Indian edo sei urte bete baino lehen hil. Susmoa da gurasoek hil, saldu edo abandonatu dituztela. Medikuek batzuek sexua zehaztea eta neskak baztertzea «urre meategi bat» zela ikusi zuten, baina, nolanahi ere, emakumeek zahartzaroraino jarraitzen dute desagertzeko arriskuan.

duko batezbestekoa 952 emakumeakoa zen 1.000 gizonen.

Urteek aurrera egin ahala, heriotza basatiak desagertu egin zirela zirudien, erditu arte haurdun zeuden emakumeak zaintzeko programei esker eta ospitaleetan jarritako sehaskei esker, gurasoek haurrak azalpenik eman beharrik izan gabe utz zituzten. Eraildako haurtxoen kasuak gutxitu egin ziren, baina emakumeen populazioak behera egiten jarraitu zuen:

ekografiak Indiara iristean, sexua hautatzeko sistema berri bat hasi zen. 1991ko erroldaren arabera, 0 eta 6 urte bitarteko 4,2 milioi neskato gutxiago zeuden mutilak baino. Egoerak okerrera egin zuen 2001eko erroldan, eta aldea 6 milioira igo zen. Azkena 2011n egin zen, eta desoreka 7,1 milioira iritsi zen, Osasunerako Ikerketa Globalerako Zentroak “The Lancet” aldizkarian argitaratutako ikerketa batean adierazi duenez. Indiako

Barne Ministerioak ere ekainean argitaratu zuen jaiotza erregistroa (2016-2018), eta proiektatutako datuak ez dira pozgarriak: 897 neska jaio ziren 1.000 gizonen.


Praktika ia India osoan zabaldu da. 2019ko uztailean, New Delhitik 300 kilometrotara da goen Uttarkashi barrutiko 132 herrixketako jaiotza erregistroek agerian utzi zuten: hiru hila-beteen jaiotako 216 haurretatik guztiak gizonen ziren.

NIRE ODOLAREN ODOLA

Mahimaren alaba hil zuena mi-fepristona eta misoprostol nahasketa bat izan zen, merkatuan eskuragarri zeuden bi sendagai. Bata “biharamuneko pilula” izenez ezagutzen da eta bestea ultzera gastrikoentzako tratamendu bat da.

«Emea zen, eta nik mutil bat nahi nuen», dio Mahimak, buz-tinezko txabolak ematen dion pribatutasunak babestuta. 26

Mutil talde bat jolasean
Kalkuta hiriko trenbidean.
Dibyanghsu SARKAR | AFP



urteko emakume beltzaren eta argal hori ez da damutzen gertatutakoaz.

Ultrasoinuaren erabilera fetuen bilakaera aztertzekeo baimenduta dagoen arren, 1994ko Jaio aurreko aurreikuspen eta diagnostikorako teknikei buruzko Legeak debekatu egin zuen familiei sexua jakinaraztea edo zerbitzu hori eskaintzea, hiru urtetik bost urtera bitarteko espetxe zigorrekin.

Baina legeak nitxo klandestino berri bat sortu zuen: ultrasoinuak erabiltzeko gaitasuna zuten medikuak edo profesionalak 300 dolar kobratzen hasi ziren ezkutuan, seinale edo keinu bat egitearen edo errezetaren ertzean marka txiki bat jarztearen truke, gurasoei sexua jakinarazteko.

«Zergatik egin nahi duzu hau?», galdetu zion Mahimari medikuak, kontsultara abortua eskatuz sartu zenean. «Ez dugulako neskarik izan nahi», erantzun zion emakumeak, eta zin egin du medikuak ez zuela aztertu haurra neska ote zen egiaztatzeko. 600 errupiarren truke (7 bat dolar) abortatzeko botikak erosteko errezeta eman zion. Hasieran, medikuak haurdunaldiarekin jarraitzea proposatu zion, eta haurra jaiotzean ospitalean uztea, baina bere alabaren etorkizuna ez zuen inoren esku utzi nahi. Neskak prostituziora bultzatu, saldu edo esklabotzan bizitzera behartzen dituzten aterpetxeetako albistek Mahima torturatzen zuten, heriotzak berak baino gehiago.

«Baina nola eman behar nion alaba? Uko egin nion, ezin nuela utzi esan nien. Nire odolaren odola da», azaldu du.

AITAREN IZENEAN

Gutxienez neskato bat desagertu den etxeak markatu beharko balira, Amisharena ere aipatu

«Praktika horren hariak nesken familiak, Gobernua, Polizia, ospitaleak eta ekonomia zeharkatzen ditu. Guztiak daude hor sartuta, eta inori ez zaio axola»

1991ko erroldaren arabera, 0 eta 6 urte bitarteko 4,2 milioi neskato gutxiago zeuden mutilak baino. 2001eko erroldan aldea 6 milioikoa zen eta 2011n, berriz, 7,1 milioikoa

beharko litzateke. Herrian egoera ekonomiko nahiko ona izateagatik nabarmendu den nekazari baten emaztea da.

Emakumea egunero hiru aldiz ateratzen da etxetik: ahuntzak bazkatzera eramaten dituean eta eskuzko ponpatik ura biltzera irteten denean. Bere lepo luzea mugitzen zaio buru gainean daramatzan 30 litroak astintzen direnean. Afariko platerak garbitzeko azken bi otarreak kargatu ondoren, nahi duena egiteko eskubidea izango du, sa-

rritan bere semearen ilea askatzea besterik ez dena.

Bere seme Ajayren aitari heriotzaren bidea argitu diezaioke. Hinduismoan, semea edo senarra, emakume baten heriotzaren kasuan, beharrezkoak dira erredentzioa lortzeko errauste errituan. Amishak bere familiaren ondorengoekiko duen erantzukizuna Mahimarena baino askoz handiagoa da. Baserritar familia baten seme bakarrarekin ezkondata zegoenez, gutxienez seme bat izatea zen bere se-

narraren leinuaren eta haren arimaren salbazioa ziurtatzeko modu bakarra.

Nekazari horren emazteak bi seme izan zituen eta tartean hiru neskato. Bakarrik lehenengo biak jaio ziren. Azkena trapu zahar baten artean geratu zen, Mahimak lortu zuen mifepristona eta misoprostol nahasketak berak eragindako abortuaren odoretan. «Bai, egin nuen», erantzun du erdi irribarrez, neskaz libratu ote zen galdetu diotenean.

Senarrak medikuarekin zuen tratua itxi zuen, haurdunaldiko hilabete bakoitzean hamalau dolarren truke botikak eman ziezazkion. Hiru hilabetez zegoen haurdun. Emazte batek ezin badu semerik eman «etxetik alde egin behar du», gurasoekin itzuli behar du, eta horrela, senarrak berriro ezkondu ahal izango du eta ondorengoak eduki, Amishak azaldu duenez; idatzi gabeko arau bat da.

Alabek etxea uzten dute senarrekin bizitzera joateko; gizonak, berriz, emaztearekin eta seme-alabekin etxean geratzen dira, gurasoak eta familiaren ondasunak zaintzeko.

Neskak bakarrik izateak familia desagertzea ekarriko luke. «Alaba bat haztea, auzokoaren baratzea ureztatzea da», dio indiar esaera batek, ezkonsariaren sistemari aipamen zuzena eginez, gurasoek euren alaben ezkontzogatik egiten duten ordainketa alegia.

Ironikoki, emakumeak dira familiaren ohorearen zaintzaileak, eta dotea estatus sozialaren erakusgarri da. Estatus sozial horrek aukera ematen die gurasoei alabarentzat hautagaririk eta etxerik onenen artean aukeratzeko. Ezkonsaria da neskatoak zama eta etorkizuneko zor gisa ikusteko arrazoi nagusietako bat.

«Nik erdia biltzen dut, eta gainerakoa gure senideei maile-



Mutiko bat eta neskato bat urez betetako kale batean Hyderabaden. Noah SELAAM | AFP

guan ematea eskatzen dugu. Familiako beste emakume bat ez kontzen denean, dirua eman beharko dut eman zidatena ordaintzeko», azaldu du Mahimak 1961az geroztik lege zigor-tutako sistema debekatua azaltzeko.

Ez dago kopururik hitzartuta. Herri pobreetan, 1.500 dolarretan has daiteke eskaintza, ganadu, bitxi, jabetza edo lur moduan. Ezkonsaria osorik ez ordaintzeak eta senargaiaren familiak diru gehiago eskatzeak, batzuetan, beste ate bat irekitzen diote heriotzari.

Erregistro Kriminalen Bulego Nazionalaren txosten berrien arabera (2018ko datuak jasotzen ditu), 7.277 emakume hil zituzten ezkonsariarekin lotutako arazoengatik, hau da, urte horretan Indian izandako 7.747 emakumeen hilketen % 94.

«Ezkonsaria ordaindu behar da. Bestela zer gizonek onartuko du zure alaba batekin ezkontzea?», dio alaba bakarra entregatu ostean bakarrik geratu den emakume zahar batek.

URAREN ERRUA

«Errua urarena da», azaldu du herrixkako beste emakume zahar batek, eta jakin badaki neskatoek hiltzeko aukera gehiago dituztela lurra emankorra ez bada. Euri faltarekin, familiak ponpa hidraulikoen menpe geratzen dira, ia oinarrizko beharrak betetzen ez dituztenak, urtean behin zelaiak berdez tindatuko dituen montzoia noiz iritsiko zain.

Urteko gainerako egunetan, gizonek herria uzten dute hirian lana bilatzeko edo jorنالero aritzeko ureztatze sistema duten eremuetan. Horrelako herrixketan emakumeak bakarrik bizi dira, eta debekatuta dute lanera joatea, bahituko dituzten edo etorkizun hobe baten bila ihes egingo duten beldur.



Familia pobreetako neskatoak laguntza jasotzen Allahabar hirian, Uttar Pradesh estatuan. Sanjay KANOJIA | AFP

«Gutxienez ur putzu bat bagenu, emakumeek etxean lan egingo lukete barazkiak landatzen, eta gurasoek ez lukete arazorik izango alaba gehiago izateko», argudiatu du Bijuk, Mahimaren aitaginarrebak. Herrixka horretan ez bezala, lur emankorrek dauden lekuetan seme-alabak edukitzeko adinako bizitza oparoa izaten da.

Barruti askok ikusi dute oparotasun hori iristen azken hamarkadan, Gobernuak finantzatutako ureztatze sistemei esker.

Baina irtenbidea zirudienak arazoa larriagotu du. Lur berdetako semeak eremu idorretatik zetozen ezkon proposamenak onartzeko ezkonsari handiagoak eskatzen hasi ziren, eta gero eta zailagoa zen hori emakume-

2018an, 7.277 emakume hil zituzten ezkonsariarekin lotutako arazoengatik, hau da, urte horretan Indian izandako 7.747 emakumeen hilketen %94

Emakume eta gizon kopuruan dagoen aldeak zalantzaz beteriko etorkizuna planteatzen du. Epe luzeko ondorioak ditu, «indarkeria sistematiko gehiago eragiten du»

entzat, Gita Aravamudan "Alabak desagerraraziz" liburuaren egileak azaldu duenez.

1984an, Sabu George ikertzailea konturatu zen neskak falta zirela. Urte batzuk zerratatzen India hegoaldean haurtzaroko nutrizio arazoak ikasten, eta abortu masiboen bidez ari zirela hiltzen ondorioztatu zuen, edo justu jaiotzean, edo beranduago, elikagairik gabe.

Ordutik, bizitza osoa eman du sarraski hori argitzen. Lehen urteetan mila emakume baino gehiagoren haurdunaldiei jarraipena egin zien Haryana estatuan, Indiako sexu ratio okerrera zuen eskualdean, eta etxe bakoitzean sortzen zen hautaketa prozesu bat ikusi zuen.

«Indiako neskatoen diskriminazioa, historikoki, erditzean nahita egindako zabarkeriaren ondorio izan zen, edo neskatoek esne gutxiago, kalitate oneko elikagai gutxiago, zaintza gutxiago eta arreta mediko gutxiago jasotzen zutelako. Baina azken 20 urteetan ikusi duguna izan da umekia galaraztea», azaldu du.

Georgek medikuak eta ekografiak aipatzen ditu arazoaren kausatzat, eta hori are larriagoa

da, bere ustez, neska bat desiratu ez izatea baino.

Ama bat erditzen bada sexua jakin gabe, «neskak gutxienez jaiotzeko aukera du, eta bizirik irauteko duen gaitasunagatik beste aukera bat izango du. Umeki etapan ezabatzen baduzu, ez dago ez aukerarik ez erresistentziarik», azpimarratu du.

Horrela, mediku batzuek ikusi zuten «neska baten sexua zehaztea eta abortatzea urte meategi bat» zela.

EMAKUMERIK GABEKO HERRIALDEA

Indiakoa bezalako gizarteetan, emakume eta gizonen kopuruan dagoen aldeak zalantzazko etorkizuna planteatzen du. Epe luzeko ondorioak ditu, «indarkeria sistematiko gehiago eragiten du» eta, besteak beste, bikotekidea aurkitzeko lehia handiagoa sortzen du, Katharina Poggendorf-Kakar soziologo eta ikertzaileak azaldu duenez.

“Emakumeak Indian” liburuaren egileak, “Galdutako neskatoak” atalean, salduak izateko beste eskualde batzuetara eramateko trafikoa aipatzen du.

Indian bizi den alemaniar jatorriko ikertzaile horren arabera, «erositako emazteak senarraren familiako beste gizonetako kide batzuekin partekatzen dira batzuetan», eta horrek areagotu egiten du etxetik urrun dauden eta «familia politikoaren» mende dauden emakumeen aurkako indarkeria.

Horrekin batera, esklabo sexual gisa esplotatzen dituzte. «Neska lagun esklaboak» esaten diete. *Zaminder*-ak (lurren jabeak), normalean, bertako langileetako batekin ezkontzen dituzte, baina lurraren jabeak ere sexualki esplotatzen ditu».

Hala, emakume askoren heriotza amaren sabelean hasten den arren, «desagertzeko» arriskuak zahartzarora arte jarrai-

tzen du. Haien aurkako «ardu-ragabekeria sistematikoa» da.

ANDREGAIEN TRAFIKOA

2001eko errolda nazionalako datuak argitaratu zirenean, Hasina Haryanara bidean zihoan, New Delhitik iparraldera, herrialde osoko sexu ratorik okerrera duen lekura: 861 emakume 1.000 gizoneko.

Hasinaren etorrera eta beste neska askorena zenbaki horien ondorio zuzena izan zen. Denak joan ziren emakume faltari erantzuteko, emazte bihurtzeko. Denak ziren Bihar, Assam edo Bengala bezalako estatu txi-roetakoak. Hasinak «ahizpa trafikatuak» deitzen die.

Emakumerik ez zegoenez, familiak baten bat ekar zezakeenari ordaintzen hasi ziren. Beharrak merkatu berri bat ireki zuen: andregaien trafikoa.

Erregistro Kriminalen Bulego Nazionalaren txostenaren arabera, gutxienez 34.923 emakume bahitu zituzten 2018. urtean indarrez ezkontzeko, egunean 95 baino gehiago. Hasinaren truke 12.000 errupia ordaindu zituen bere senarrak, 136 euro inguru.

«Erosi zaitut. Bufalo bat erosi-ko nukeen bezala erosi zintudan», oihukatzen dio senarrak borroka bakoitzean, «paro» bat besterik ez dela gogorarazteko, eskualdeko haryanvi dialektoan «erositako emakume bat» adierazi nahi duen hitza. Hain zuzen, paro izan zen haryanvieraz ikasi zuen lehen hitza.

Senarra ez zen lehen eroslea izan. New Delhira hamabi urterekin iritsi zen, «bitartekari» baten eskutik. Gizon horrek hiriburura paseoan eramango zuela eta gurasoek baimena eman ziotela konbentzitu zuen.

«Konturatu nintzenean Delhin geunden», gogoratu du 32 urteko emakumeak. Atea ireki-

ta dago eta inork ez du geldiarazten, baina harentzat ez dago atzera bueltarik. «Ezin da paro bat erreskatatu», dio.

Izan ere, bere aitak duela hamabost urte aurkitu zuen, baina ezkondu zegoenez, etxera itzultzea desohorea izango litzateke familiarentzat.

«Ona da andregai bat erostea gizon batek behar badu. Horrela ez balitz, non egongo nintzateke?», azaldu du beste emakume batek, Basanti bangladeshtarrak, duela hogeitau urte baino gehiago erosi baitzuten Haryan gaixo zegoen agure bat zaintzeko.

Familiaren lagun batek bahitu zuen, telebista ikustera joaten zitzaien bisitan. 6.000 errupiatan saldu zuten, 68 bat eurotan. Horrek bizia salbatu ziola dio berak. Une hartan alarguna zen eta bost hilabeteko haurdunaldia zuen, miserian bizitzera kondenatu zezakeen egoera batean zegoen.

BIZIRIK ATERA DENA

Bareillyko erraustegi nagusian, Uttar Pradesh estatuan, arratsaldeko seiak ziren lurretik irteten ari zen negar bat entzun zenean. Ordu horretan langileak joanak ziren, eta Babu Ramek, zaindaria, bere auzoko bizilagun bati, Aakash Kumarri, hilobi bat egiteko eskatu zion, senar-emazte batzuek bere haurra, hilda jaioa, lurperatu ahal izateko. «Zulatzen ari nintzen palak buztinezko ontzi bat jo zuenean, eta orduan hasi ginen negarra entzuten», dio lurperatzaile inprobisatuak. Ontzia ireki eta 1.200 gramo baino gehiago ez zituen neskato bat aurkitu zuen.

Umeen aurkako krimenak maiz gertatzen dira, onartu du bere izena jakinarazi nahi izan ez duen poliziaburu batek. «Duela astebete, komun baten

Emakumerik ez zegoenez, familiak baten bat ekar zezakeenari ordaintzen hasi ziren. Behar berri horrek merkatu berri bat ireki zuen: andregaien trafikoa

«Erosi zaitut. Bufalo bat erosi-ko nukeen bezala erosi zintudan», oihukatzen dio senarrak borroka bakoitzean, «paro» bat (erositako emakume bat) besterik ez dela gogorarazteko

barruan haurtxo bat aurkitu genuen hilda. Ama nor den ez dakigun bitartean, zaila izango da jakitea zergatik egin duen hori», adierazi du poliziak. «Nik uste dut bizirik lurperatu zutela neska delako», gaineratu du Aakash.

Ospitalean bi aste eman ondoren, erizainak «Sita» izenez hasi dira deitzen haurtxoari, Rama jainkoaren emazte ukaturen izenez, hinduismoaren emakumezko pertsonaia nagusietako bat.

«Borrokalaria da. Bi egun eta erdi eta hiru egun artean egon

zen lur azpian», dio Ravi Khanna sendagileak. Haurtxoak ia metro bateko sakoneran bizirik iraun ahal izan zuen, ontzian oxigenoa pilatuta geratu zelako eta erdi-hibernazio egoeran egon zelako, «hartz bat bezala». Miraria urik gabe bizitzea izan zen.

Medikuak ukatu egin du gizonzkoen hautaketa dagoela eta, hogeitau urte baino gehiago inkubagailu aztertzen dituen bitartean, han «bi sexueto haurrak» dardela azaldu du. «Baina, itxaron», dio. «Tira, une honetan, bai, Sita da neska bakarra».

Emakume bat loreak eramaten buru gainean
Mumbain.
Sujit JAISWAL | AFP

